

**ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAREN KONTZEPTUA  
2013KO EKITALDIA**

**SOZietateen GAINeko ZERGAREN FORU ARAUA (24/1996 FA)**

**49. artikulua – Enpresa txiki eta ertainaren kontzeptua.**

---

1. Hurrengo baldintzak betetzen dituen da enpresa txikia:

a) Ustiapen ekonomikoa gauzatu behar du.

b) Haren eragiketa bolumenak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko ekonomia Itunean zehaztu bezala, edo haren aktiboak ezin ditu 10 milioi euroak gainditu.

c) Plantillako batez besteko kopurua ezin da 50 lagunera heldu.

d) Aurretik adierazitako baldintzetakoren bat betetzen ez duten enpresek ezin dute % 25eko edo hortik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetzarik izan. Salbuespen dira Foru Arau honetako 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, zehazten diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak edo enpresak sustatzeko sozietateak, baldin eta, kasu bietan, partaidetza haien sozietate xedea betetzearen ondorio zuzena bada.

2. Hurrengo baldintzak betetzen dituen da enpresa ertaina:

a) Ustiapen ekonomikoa gauzatu behar du.

b) Haren eragiketa bolumenak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztu bezala, ezin ditu 50 milioi euroak gainditu, edo bestela, haren aktiboak ezin ditu 43 milioi euroak gainditu.

c) Plantillako batez besteko kopurua ezin da 250 lagunera heldu.

d) Aurretik adierazitako baldintzetakoren bat betetzen ez duten enpresek ezin dute % 25eko edo hortik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetzarik izan. Salbuespen dira Foru Arau honetako 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, zehazten diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak edo enpresak sustatzeko sozietateak, baldin eta, kasu bietan, partaidetza haien sozietate xedea betetzearen ondorio zuzena bada.

3. Aurreko 1 eta 2 idatz zatietan adierazitako baldintzak zerga sortu aurreko zergaldian bete beharko dira. Zergaldi hori egutegiko urtea baino txikiagoa izan bada, eragiketa bolumena urtekoratu egingo da. Erakunde sortu berrien kasuan ere berdin jokatuko da.

4. Aurreko 1 eta 2 idatz zatietako c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, plantillako batez besteko kopurua kalkulatzeko lanaldi osoz ari diren langileak (urteko) kontuan hartuko dira. Lanaldi partzialez ari diren langileei dagokionez, kalkulua lan egindako orduen proportzionala izango da.

5. Merkataritza Kodearen 42. artikuluari jarraikiz, erakundea sozietate taldearen zati bada, lehen adierazitako kopuruak talde horri dagozkion erakunde multzoarenak izango dira. Aktiboa eta eragiketen bolumena zenbatzeko ondorioetarako, Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hori garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera bidezkoak diren ezabapenak kontuan hartuko dira.

Oharra: agiri hau ez da ofiziala eta jakinaraztea baino ez du helburu.

## **SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGAREN ARAUTEGIA (60/2002 FD)**

### **35. artikulua – Enpresa txiki eta ertainaren kontzeptua.**

---

1. Zergari buruzko Foru Arauko 49. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritako baldintzak bete behar dira enpresa txiki eta ertainen araubidea aplikatu nahi den aurreko ekitaldian.

Sortu berri diren erakundeen kasuan edo geldirik egon diren eta ustiaketa ekonomikoa abiatu berri dutenen kasuan, zerga sortuko den ekitaldian bete beharko dituzte baldintzak.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako 1. eta 2. idatz zatietako c) letran aurreikusitako baldintzaren ondorioetarako, pertsona enplegatuen kopuruak ez du 50 edo 250eko kopurua gaindituko erreferentziako zergaldiko edozein egunetan.

3. Aurreko 1 idatz zatiko bigarren paragrafoak hizpide dituen kasuetan, sortzapenaren aurreko zergaldia urtebete baino gutxiago izan bada, eragiketen bolumenari dagokion magnitudeari bakarrik emango zaio urteko balioa. Neurri hori bera aplikatuko da geldirik zeuden eta abiatu diren erakundeen kasuan, baldin eta abiatzea zergaldiaren hasieraren ondoren jazotzen bada.

4. Zergaren foru arauko 49. artikuluko 4. idatz zatian aurreikusitako gorabeherak gertatzen direnean, ibilgetu garbia eta eragiketa bolumena zenbatzearen ondorioetarako, dagozkion ezabapenak hartuko dira kontuan, urteko kontu finkatuak formulatzeko arauekin bat. Arau horiek abenduaren 20ko 1.815/1991 Errege Dekretuaren III. kapituluko 4. atalaren bidez onartu ziren.

Oharra: agiri hau ez da ofiziala eta jakinaraztea baino ez du helburu.